BIOGRAFIA ETA AUTOBIOGRAFIA

BIOGRAFIA

- ✓ Norbaiten bizitzaz idatzitako deskripzioa edo historia da.
- ✓ Hirugarren pertsonan idatzita.
- ✓ Normalean ez ditu sentimenduak edota emozioak erabiltzen.
- ✓ Beste pertsona baten gertaerak eta bizitza kontatzen du.



AUTOBIOGRAFIA

- ✓ Pertsona batek bere buruaz kontatutakoa.
- ✓ Lehenengo pertsonan idatzita. (nik, nire)
- ✓ Sentimenduak edo emozioak erabiltzen ditu normalean.



Irakurri testuak eta lotu.

ELENA ODRIOZOLA




Donostian jaio nintzen, 1967an. Txikitatik kirolak baino gehiago, marraztea gustatu zait.

Ikasketak amaitu eta gero, publizitatean hasi nintzen lanean. Aldi berean, liburuak ilustratzen hasi nintzen.

1998. urtean, nire lana marraztea izango zela erabaki nuen. Testu liburuak ez ezik, beste mota bateko liburuak ere ilustratzen ditut.

Galtzagorri elkarteko kidea naiz, eta haurrentzako eta gazteentzako euskarazko literatura sustatu eta ezagutarazi nahi dugu.

LOUIS CARTIER (1875-1942)



Louis Cartier

Louis Cartier, jatorriz frantsesa, erlojugile eta bitxigile famatua da; batez ere, eskumuturreko erlojua asmatu zuenetik.

1940an, Alberto Santos-Dumont hegazkinlari brasildarra ezagutu zuen, eta lagun handiak egin ziren. Horrek hegaldietan erabiltzeko erloju bat diseinatzeko eskatu zion Louis Cartierri. Cartierrek larruzko uhal eta guztiko urrezko muturreko erlojua oparitu zion. *Santos* izena jarri zion erloju horri. Gaur egun ere fabrikatzen da.

Harrezkero, Cartier marka izen handikoa da munduan zehar.

BIOGRAFIA

AUTOBIOGRAFIA